

Caritas Gipuzkoaren 2020ko memoria

20_{ko} **ME
MO
RIA**

www.caritasgi.org



Caritas
Gipuzkoa

“**K**aritatea praktikatzeak taxutzen eta bideratzen ditu gizarte-bizitzako balioak; horrela, kristau-komunitate osoak utzi ezin duen eginkizuna da, bere sinesgarritasunaren funtsezko frogarria, eta itxaropena landatzeko bitarteko oso baliotsua.

Caritasen lanak hiru dimentsio nagusi ditu: justizia eta guztien ongizatea sustatzea; ahulenei lagun egitea, beren egoera arintzeko edo bizimodu duina lortzen lagunduko dieten baliabideak eta gaitasunak ematen saiatzeko; eta fedearen karitatezko alderdia sustatzea kristau-komunitatean. (...)

Krisi larriko eta norbanakoen zein familien tragediak bizi diren une hauetan, gure Caritas guztiak animatu nahi ditugu ahal bezain beste azpimarratzera beren izaera osatzen duten bi ezaugarriak: harrera eta laguntasuna

(Euskal gotzainen gutun pastoral - 2013)

”



ESKER ONA

Horrela, bide bat baino gehiago, konpromiso bat partekatzen dugu.

Pobreziaren eta bazterketaren ondorioak sufritzen dituztenen ondoan egotea denon konpromisoari esker baino ezin liteke lortu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu babesik gabe geratu diren pertsonen eta familiei, bizitza duin hobea izateko lagun egiten diegun horiei.

Caritasen lan egiten duten boluntario eta kontratatu guztiei, gure gizarteko kolektibo behartsuenen bizi-baldintzak hobetzeko aktiboki parte hartu eta desparekotasunak dauden tokian justizia bultzatzen duten horiei.

ORGANIGRAMA

PRESIDENTEA

Presidente **José Ignacio Munilla mons. jn.**

ZUZENDARITZA-TALDEA

Gotzain-ordezkaria	Xabier Andonegi
Zuzendaria	José Ramón Aramendi
Idazkari orokorra	José Emilio Lafuente
Administratzailea eta idazkari teknikoa	Kontxi Elexpe

ARLOETAKO ADURADUNAK

Lurraldeko ekintzaren arloa	Jon Telletxea
Etterik gabeko pertsonen arloa	Jose Antonio Lizarralde
Familiaren, emakumeen eta umeen arloa	Itziar Subinas
Etxebizitzaren eta egoitza-zentroen arloa	Rosa Hernandez
Ekonomia solidarioaren arloa	Xabier Jorin
Komunikazio, prestakuntza, eragin eta boluntario arloa	Mabel Cenizo
Kudeaketa, administrazio eta aholkularitza juridiko arloa	Zuzendaritza

GERTAERA GARRANTZITSUAK: COVID-19



Caritas Gipuzkoak aurkezten duen memoria honetan, pandemiak gure etxeetan, gure gizarte-laguntza ereduan, gure erakundean eta gure boluntariotzan dituen inpaktuak eta erronkak jasotzen ditu.

Pertsonengan eta etxeetan

Pandemiaren ondorioz nabarmen areagotu da pobrezia ekonomikoa eta bazterketa. Krisi guztietan azaleratzen dira gorabeheren aurrean babesten gaituzten bi eragile nagusiak, familia edo komunitatea eta politika publikoak. Zenbait etxetan ez dute beharrezko babes publikorik izan, ezta hurbileko edo behar adinako familia- edo komunitate-sarerik ere eta Caritasera jo dute behar-egoeren aurrean laguntza eske.

Gure erantzunen ereduan

Larrialdiari aurre egiteko, laguntzeko erantzunak areagotu ditugu bereziki, baita laguntza ekonomikoak ere, ez soilik beharrak erantzunez, baizik eta pertsonen autonomia eta askatasuna emanez nola kudeatu erabakitzeko.

Emandako larritasunezko eta beharrezko laguntza horren ostean, Elizaren pentsamendu sozialak pobretutako pertsonen dituzten gaitasunei begiratzea eskatzen digu eta aukerak ematera behartzen gaitu pandemian zehar erori diren familia horiek guztiek beren bizi-proiektua, enplegua, diru-sarrerak, etxebizitza eta hezkuntza berreskura ditzaten. Bazterketaren



kulturari gure praktikekin erantzuna ematera behartzen gaitu egoerak.

Erakundearen antolaketan

Gure misioa hobetzen jarraitzeko hiru gertakari dira ezinbestekotzat jo behar ditugunak.

✱ **Eten digitala:** laguntzen ditugun pertsonen gaitasun digitalen faltagatik bitartekari-lanak egiteko beharra topatu dugu.

✱ **Boluntarioritza:** pertsona askok ulertu dute norberaren denborarekin eta dedikazioarekin erantzun behar zaiola krisi honi. Eliza garen aldetik, komunitatearekin lotura duen proiektu pastoralak berreraikitzeak aukera ematen digu erronka horrek. Indartu dezakegun komunitatea eta babeserako eta zaintzarako faktorea dena. Pertsona zaurgarrien euskarri sozial izateko elkar babestu eta laguntzeko harreman komunitarioak indartzea hain beharrezkoa den auzoetara boluntario berriak bideratzeko aukera ematen digun oparia.

✱ **Elkartasuna:** beste behin ere, Gipuzkoako gizarteak egoera interpretatzen jakin du baldintzetara egokitutako erantzuna emanez. Asko izan dira eskuzabaltasunez beren harri-koskorra ekarri duten pertsonak, profesionalak eta enpresak. Administrazio Publikoekin ere baterako eta koordinatutako lana egin da elkarriketa estu eta hurbila abiapuntu izanik.

Eskertzekoak dira hain zaila izan den urte honetan izandako elkartasunezko eta konpromisozko adierazpen guztiak, bakoitzak bere baliabide eta aukerekin lagundu baitu gehien behar zutenen bizitza hobetu ahal izateko.

DATU ESANGURATSUAK




LAGUNDUTAKO PERTSONAK


19.425

Emakumeak

Migratzaileak



Gizonak




Nazionalak

BOLUNTARIOAK

905

Emakumeak



Gizonak


PARROKIA ETA ZENTROETAN EMANDAKO ZUZENEKO LAGUNTZAK

2020. urtea

2019. urtea

3.211.706 €

1.722.885 €



LURRALDEKO EKINTZAREN ARLOA



Artatutako
pertsonak

15.466

Boluntarioak

604

Egindako
inbertsioa

4.280.739 €

Pandemiaren etorrerak inpaktu sozioekonomiko eta emozional sakona eragin du gure ingurunean. Bi une desberdin nabarmentzen ditugu

Hasierako une batean

Aurrez aurre ematen den laguntzaren zati handi bat, 84 harrera kasu, aurrez aurreko arreta soziala, telefono bidezko arretarekin ordezkatu behar izan zen.

Alde batetik, errealitate berriak nabarmen areagotu zuen aurrez inoiz Caritasera jo gabeko pertsonen eta familien arreta. Bestetik, **Gipuzkoako Caritas** saretik irtendako pertsonak eta familiek gugana jo zuten, pandemiaren ondorioz behartuta aurkitu baitziren berriro ere parroketako harreretara gerturatzerako laguntza eskatzeko. Lana ezkutuko ekonomian edo ekonomia informalean garatzen zuten eta egun batetik bestera beren diru-sarrerak galdu zituzten pertsonak ziren nagusiki.

Diru-sarrerak asko murriztu zitzaizkien pertsonak eta laguntza ekonomikoa behar zutenei ere eman zitzaien laguntza.

Gure atea jo zuten ABEEE-engatik prestazioak jasotzen zituzten pertsonak ere, jasotzen zituzten laguntzak ez zirelako behar adinakoak familiaren behar guztiei erantzuteko.

Bigarren une batean

Parrokietako harreraren sarea pixkanaka ateak zabaltzen hasi zen; aurrez aurreko arretari heldu zitzaion berriro ere prebentziorako neurri espezifikoak kontuan hartuta.

Aldi horretan zehar, laguntza eskatu zuen pertsona kopurua egonkortzen joan zen. Hala eta guztiz ere, aipatzekoa da pertsona kopuru handi batek **Gipuzkoako Caritasen** laguntza behar izan duela denbora luzez.

*Familia kopurua: **7.225**

*Artatutako pertsona kopurua: **15.466**

PARROKIETAKO CARITASEN ERANTZUNA

Gure parroketako harreraren saretik behar materialei erantzuteko laguntzetan eta erlazio-laguntzaren alorrean zentratu da arreta: oinarritzko beharrei erantzuten lagundu dugu, hala nola iraupena, etxebizitza eta hornigaiak; dauden baliabide publikoei buruzko informazioa eta orientazioa eskaini dugu; laguntza emozionaleko lana egin dugu herstura handiko egoeren aurrean entzunda eta gertu egonda, eta oinarritzko gizarte-zerbitzuekin koordinatu gara lankidetzatik lan egin eta gizarte-laguntza osagarria eskaintzeko.

Azpimarratzekoa da Eusko Jaurlaritzak sortutako **Azken Sarea**

Indartzen funtsaren sorrera, non parroketako harrera-sareak parte hartu duen. Elikadura, osasuna, etxebizitza eta mantenuaren

alorrean sortutako beharrei erantzutea izan da/da funtsaren helburua; laguntza horren hartzailak izanik gizarte-babeserako sistemako laguntza ekonomikoak eskuratu ezin izan dituzten pertsonak.



KOMUNITATE-ANIMAZIOA

Azpimarratzekoa da boluntarioek laguntzarako eta zaintzarako eskaintzen duten dedikazioa. Komunitate-animazioak komunitateko, parrokiako, auzoko... bizitzan esku hartzen duten pertsonak behar ditu. Gizarte-ehun komunitarioa birstortu behar dugu eta kohesioa sortu. Denon artean komunitate bat osatzeko gai baldin bagara aterako gara

egoera honetatik. Sendotutako

gizartea, gizarte-oinarri sendoak dituzten eta guztien ongizatea bultzatzen duten sareez osatutako erakundeez eratua.

ETXERIK GABEKO PERTSONEN ARLOA



Etxerik gabeko pertsonen arloaren helburua gizarte-bazterketako eta bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonen arreta eta laguntza ematea da; hau da, bizitegi duinik ez dutenei eta gizarteratzeko prozesu bat egiteko zailtasunak dituztenei laguntzea.

KONFINAMENDUAN ZEHARREKO EGOKITZAPENA

Aterpe eta Hotzaldi

(etxerik gabeko pertsonentzako eguneko eta gaueko harrera-etxeak)
24 orduz baliabide gisa funtzionatu ahal izateko eta osasun-gomendioei jarraikiz etxeko konfinamendua betetzeko aukera bat eskaintzeko prestatu ziren.

Eutsi

(etxerik gabeko pertsonentzako kalteak murrizteko programa)
Programa horretan artatutako pertsonen gehiengoa Gipuzkoako Foru Aldundiak

konfinamenduan zehar prestatutako zentro batean sartu ahal izan zen; zentro hori Aterpe Gauan hitzartutako plaza zuten pertsonak jasotzera bideratuta zegoen.

ALORRA BERRIZ IREKITZEA, EGOKITZEA ETA BIRPLANTEATZEA

Aterpe eguneko zentroa

Eguneko zentroari eutsi egiten zaio, zerbitzu eta prestazio berberekin, Eutsi programa barneratuz, arreta pertsonal handiagoa eskatzen duten etxerik gabeko pertsonen artatu eta lagundu ahal izateko, aktibazio pertsonaleko eta kalteen murrizketa, sozializazio eta partaidetza prozesuetan lagun egiteko xedearekin. 32 plaza ditu.

Aterpe Gauea

Gaueko ostatu-zerbitzu honetan 22 plaza eskaintzen ditugu, lehen bezala, eta eremua egokitu egin dugu ahal den heinean pribatutasun handiagoa ahalbidetzeko eta zerbitzuan osasun-gomendioak betetzeko.



12 plaza ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmenduta.

Hotzaldi

Hotzaldi gaueko abegi-zentro bat da, kalean bizi diren pertsonak artatzeko. Plazak 30era murriztu dira osasun-gomendioak kontuan hartuz; horrela pribatutasun eta intimitate handiagoa eskaini ahal izan dira, Caritasek bultzatzen dituen zerbitzuetan duintasuna eta kalitatea hobetzeko prozesuaren baitan.

Bidelagun

Etxerik gabeko pertsonen laguntzeko taldea osatzen duten 6 esku-hartze teknikari txertatuta programa sendotu da. Programaren helburua laguntzea da, baina ez soilik gure zentroetan artatutako pertsonen, baita gure atea jotzen ez duten kaleko pertsonen ere, egoera pertsonala dela-eta gure aldetik intentsitate eta moldagarritasun handiagoa eskatzen dutelako laguntzeko eta hasi nahi duten egoera hobetzeko prozesuetan.

Laguntza Etxea

Etxe honek ateak itxi dituen arren, bertan laguntza jasotzen zuten pertsona guztien jarraipena egin da eta haiei laguntzen jarraitu dugu, konfinamenduaren ostean, etxe eta bizi aukera duina eta kalitatezkoa eskainiz.

Eusko Jaurlaritzaren Lehen Urratsa programarako sarbidea

Eusko Jaurlaritzak Lehen Urratsa programarako Caritasek aurkeztutako proiektua onartu zuen. Programaren xedea konfinamendua espezifikoki xede horretarako prestatutako aterpeetan igaro zuten etxerik gabeko pertsonen aukerak eskaintzea zen/da. Programari esker 35 pertsona lagundu ahal izan genituen etxebizitza duin batera iristen eta aktibo zituzten gizarteratze-prozesuak bultzatu ahal izan genituen.

FAMILIAREN, EMAKUMEEN ETA UMEEN ARLOA



Artatutako
pertsonak

1.137

Boluntarioak

35

Egindako
inbertsioa

218.610 €

Alor horretan, baliabideak eskaintzen zaizkie pertsona eta familiei, laguntza-programen bidez eta giza sustapeneko prozesuak garatzen dituen laguntza eskainiz.

ADORE

Helburua familien gaitasunak indartzea eta hobetzea da, laguntza eskainiz, autonomia eta gizarteratze handiagoa lor dezaten, eta trebetasun pertsonalak eta/edo harremanetarakoak garatuz.

Programa honek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmena du.

COVID-19aren egoerarekin parametro hauek sendotu ditugu

- * Laguntza emozionala, orientazioa, materialak eta baliabideak eskaintzea sortzen joan diren arazoei aurre egin ahal izateko.
- * Konfinamendu-egoeraren aurrean behar-



egoerei aurre egiteko administrazio desberdinek aktibatutako neurriei eta laguntzei buruzko informazioa eta aholkua ematea familiei.

- * Ikastetxeekin harreman sarria sortzea adingabeei eta haien familiei modu eraginkorragoan lagundu ahal izateko.
- * Koordinazio sarriagoak finkatzea lehen mailako eta osasun mentaleko osasun-zentroekin.

MIRIAM

Miriam programan gizarte-egoera ahulean dauden emakumeak artatzen ditugu, gizarte-eta familia-laguntza gutxi edo batere ez dutenak. Emakume gehienak migratzaileak dira (% 84), eta horietako % 61 administrazio-egoera irregularrean daude. Emakume horien profilak askotarikoak izaten dira; adibidez, genero-indarkeriaren biktimak izaten dira, bidaia ordaintzeko zor ekonomiko bat dutenak eta seme-alabak familiartekoen ardurapean utzi dituztenak.

Artatutako emakumeen kopurua 1.076koa izan da. Horietatik 459k tailer eta prestakuntza-ikastaroren batean parte hartu dute.

Orientabideko eta enplegu-bilaketako zerbitzuaren bitartez, 175 familien eskaerak kudeatu dira. Familia horiek artatu eta etxeko-langileen eskubide eta betebeharrei buruzko

informazioa eman zaie eta horrek aukera eman du 103 lan-kontratu egiteko.

Programa honek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmena du.

COVID-19aren egoerarekin parametro hauek sendotu ditugu:

- * Laguntza emozionala, orientazioa, entzutea eta informazioa sortzen joan diren arazoei aurre egin ahal izateko. “Entzun eta laguntza emozionala” emateko zerbitzu berria boluntarioekin.
- * Eskubideei, laguntzei... buruzko informazioa eta aholkularitza (etxeko langileentzako sorospen berezia izapidetzea...)
- * Administrazioekin eta bestelako erakundeekin online egin beharreko kudeaketei buruzko informazioa eta orientazioa: lanbide, Gizarte Segurantza, atzerriartasunarekin lotutako gaiak...

BULTZADA

Programa horren helburua da neska-mutilei beren eskolatzeak eta sozializazioak irauten duen bitartean laguntzea, garapen pertsonal eta sozialerako erabakigarria den lehen etapa hori sendotzeko.

COVID-19aren egoerarekin parametro hauek sendotu ditugu:

- * Ikastetxeetako tutoreekin maiztasun handiagoarekin koordinatzea.



* Adingabekoen euskarri digitaleko beharrak antzematea eta horiei erantzuna ematea. Horretarako askotariko kudeaketak egin dira ikastetxeekin eta Gipuzkoako Caritasek gailuak mailegatu ditu eta konektibitatea eskaini du. Gailuak eta wifi konexioa eskaini zaizkie familiei; horietako gailu batzuk eta konektibitatea Eusko Jaurlaritzak emandakoak izan dira, Gipuzkoako Caritasek Aukerak Suspertzen programan duen partaidetzaren baitan. Horrez gain, tableta, ordenagailu eta miffyen donazio ugari jaso ditugu enpresa eta fundazioen eskutik.



ETXEBIZITZAREN ETA EGOITZA-ZENTROEN ARLOA

Artatutako pertsonak **103** Boluntarioak **22** Egindako inbertsioa **1.424.892 €**

A rlo honetatik bizileku-premiaz gain beren bizi-proiektu autonomoan bestelako babesak behar dituzten pertsonak eta familiak artatzen ditugu.

TRINTXER-EMEKI EGOITZA-ZENTROA

Gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen bideratutako egonaldi luzerako egoitza-zentroa da. Baliabide honetan egiten den gizarte-ekintzaren helburua egoitzan dauden pertsonen gizarteratze-prozesuak sustatzea da.

Zentroak presaz egokitu behar izan du egoera berrira; eremuak antolatu ditu ezarritako mugei eta urrutze sozialari erantzuteko, jangelako txandak zabaldu ditu eta zentroko eguneroko jarduerak mugatu ditu besteak beste. Ildo horretatik, egoiliarren talde handiko batzarrak murriztu egin dira eta talde txikietan egin dira. Ia ez da egin aisialdiko eta denbora libreko irtenaldirik. Horrek aldaketa ekarri du pertsonen esku hartzeko moduan.

Azpimarratu beharreko alderdiak

Zentroan artatutako pertsonen profila gero eta kronikoagoa da eta laguntza soziosanitarioaren behar handiagoa dute. Egoiliarren erdiak baino gehiagok aitortuta dute % 50etik gorako desgaitasuna eta zenbaitek I. mailako mendekotasuna dute. Horri osasun mentalaren eta mendekotasunen arazoa gehitu behar zaio. Horrek guztiak gizarteratzeko ekintza eta laguntza oztopatu egiten du.

- * Artatutako pertsonak: 36 pertsona
- * Gizonezkoak eta emakumezkoak: 29 gizon eta 7 emakume
- * Migratzaileak: %45

27 plaza ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmenduta.

SORABILLA EGOITZA-ZENTROA

Sorabilla egonaldi ertaineko egoitza-zentro bat da, gizarte-bazterketako egoeran dauden 18 urtetik 35 urtera bitarteko gazte helduak

artatzeko. Zentroaren helburua gazte horiei gizarteratze-prozesuak eskaintzea da.

Zentroak egokitu egin behar izan du funtzionamendua eta antolaketa egoera berriaren aurrean: eremuak desberdin banatu ditu, protokoloak ezarri ditu zentro barruan garbiketa eta prebentzio- eta segurtasun-neurriak areagotzeko, jangelako txandak ugaritu ditu, eremu komunak erabilera mugatu du eta banakako logelak prestatu ditu isolamendu eta berrogeialdi kasuetarako.

Egoiliarrei dagokionez, haien jarrera txalotzekoa izan zen konfinamendu garaian: egoera zein larria zen ulertu zuten, gertatzen ari zenari buruzko albisteak aipatzen ziren eta nola bizitzen ari ziren adierazten zuten.

Konfinamendua arindu zenean, ordea, pilatutako estres-egoeratik eta zenbait egoiliarren problematika berezia dela-eta, jarrera konplexuak gertatu ziren, baita zenbait gatazka-egoera ere.

Covid-19aren agerraldi bat izan da zentroan. Hainbat langilek zein egoiliarrek positibo eman dute eta horrek kontrolak eta berrogeialdi zorrotza egiteko beharra ekarri du.

12 plaza ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmenduta.

Azpimarratu beharreko alderdiak

Zabalbidean egitasmoaren oinarriak ezarri dira. Esperientzia horrekin zentroko gazteak gizarteratu eta komunitatean integratu nahi dira; egoerak ahalbidetzen duenean jarriko da



abian. Horretarako lankidetzak hitzarmena sinatu da Andoaingo Udalarekin.

✱ Artatutako pertsonak: 19 gizonetzko; % 90 atzerritarra eta % 10 bertakoa.

ZUBIA PROGRAMA

Programa honen bitartez aldi baterako egonaldia eskaintzen dugu gure etxebizitza-sarean, baita gizarte- eta hezkuntza-laguntza integrala ere pertsonen eta familiei. Helburua bizitza autonomoago bat garatzeko gaitasunak eta baliabideak eskuratu ditzaten lortzea da.



Covid-19ak desberdin eragin die Caritasen etxebizitzetan bizi diren pertsonen eta familien eta haiekin esku hartzeko eta laguntzeko modua aldatzea ekarri du.

Lehen alarma-egoeraren adierazpenarekin eta konfinamenduarekin, aurrez aurreko laguntza eten egin zen eta telefono bidez edo bideo-dei bidez egitera igaro zen, larritasuneko kasuetan izan ezik, horietan aurrez aurre egiten jarraitu zen.

Adingabeek zailtasunak izan zituzten ikastetxeetako klaseak jarraitzeko beharrezko baliabiderik ez zutelako eta, helduek, berriz, zailtasunak izan zituzten seme-alaben eskola-jarraipena

egiteko. Bitartekaritza-lana egin zen ikastetxeekin eta horietako zenbaitek ordenagailuak eta Interneterako konexioa eskaini zizkieten adingabeei. Caritasek Interneterako sarbidea ere eskaini zien beharra zuten familiei.

Lagundutako pertsonen eta familien modu desberdinetara eragin die Covid-19ak:

Gizarteratze-prozesuak eten edo luzatu egin dira, bertan behera geratu baitira zenbait prestakuntza-jardura edo lanerako prestakuntzarako jardura.

✱ Lana zuten zenbait pertsona ABEEE egoeran sartu ziren.

✱ Kudeaketak bide telematiko egiten dira gero eta gehiago eta horrek zailtasunak ekarri dizkie pertsonen hizkuntza-oztopoak direla-eta, askok ondo irakurtzen eta idazten ez dakitelako edo baliabideak eta gaitasun digitala falta dituztelako.

✱ 17 plaza ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmenduta.

Azpimarratu beharreko alderdiak

Alderdi positibo gisa garrantzitsua da azpimarratzea talde-lana funtsezkoa izan dela eta koordinazioa ona izan dela erakunde guztiekin, publikoekin zein pribatuekin.

✱ Artatutako pertsonak: 87.

✱ 56 emakume eta 31 gizon.

✱ 22 familia eta bakarrik zeuden 4 emakume artatu dira.

✱ % 83 inguru migratzaile.

EKONOMIA SOLIDARIOAREN ARLOA



Artatutako
pertsonak **52**

Boluntarioak **19**

Egindako
inbertsioa **756.367 €**

LAMOROUS HEZKUNTZA- ETA OKUPAZIO-TAILERRA

Hezkuntza- eta okupazio-baliabide bat da, parte-hartzaileei beren bizitzako ibilbidean laguntzen diena dituzten gaitasunak sustatuz; hala nola lanerako ohiturak eta higieena, autoestimua eta giza harremanak.

Aurten eragin handia izan du COVID-19ak: zentroa etengabe berrantolatu eta egokitu behar izan da pandemia-egoerak eskatutako higie-neurrietara, bai pertsoneri, bai eremuei, bai ordutegiei dagokienez. Zuzeneko kutsatzeen ondorioz 3 aldiz itxi behar izan dugu.

Programa honek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmena du.

Lorpen esanguratsuenak

Baliabide teknologikoak erabiltzea une larrienetan etengabe harremanetan egoteko parte-hartzaileekin eta boluntarioekin, zentroan zein zentrotik at.

Datorren urterako aurreikuspen hauek egin dira: lankide ditugun enpresekiko harremana

hobetzea eta areagotzea, beharren arabera prestakuntza-aukerak eskaintzen jarraitzea eta boluntario parte-hartzaileen eginkizuna baloratzen eta zaintzen jarraitzea.

Parte-hartzaileen kopurua: 31 pertsona, 25 gizon eta 6 emakume

ALTZAKO BARATZE EKOLOGIKOAK

Bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzako okupazio-proiektua Ekialde eta Donostiako baratzeetan. Erabiltzaileei harrera egitea, integratzea eta baratze-prestakuntza ematea du helburu nagusia. Lursaila Donostiako Sustapenak laga du.

*Parte-hartzaileak guztira: 10 pertsona

ENPLEGUA

11 parte-hartzaile langile izateko aukera eskaini diegu honako hauetan.

- *CIE Automotive: 6 pertsona.
- *BEXEN medical: 3 pertsona.
- *KOOPERA: 2 pertsona.



FINANTZA ETIKOAK

Caritasek finantza etikoetako ekimenak sustatzen ditu, dimentsio etiko bat gehitu duten finantzaketa-sistemen aldeko konpromiso gisa, eta, besteak beste, inbertsio-funts etikoetan inbertitzen du, eta FIARE banku etikoaren alde egiten du —bertako bazkide-sortzailea da—.

ENPRESA BIHOZTUNAK. ENPRESAREN GIZARTE-ERANTZUKIZUNA

“Enpresa bihoztunak” apustu bat da, erronka bat, itxaropen bat, enpresekin egindako lankidetzaproiektu berritzailea eta eragile ekonomikoak gizarte-ongizatearen garapenean inplikatzea eta Caritasek garatzen dituen jarduerekin sentsibilizatzea du helburu.

Lankidetzarako aukerak:

- * Caritasek lagundutako pertsoneri lan-merkatuan sartzen lagunduz, lanpostu bat eskainiz edo lanbide bat ikasteko edo hobetzeko aukera eskainiz.
- * Caritasek lantzen dituen arazo sozialak eta garatzen dituen jarduerak zabalduz.
- * Proiektu zehatzak laguntzeko dohain ekonomikoa emanez.

NAZIOARTEKO LANKIDETZA

(Jardunbideak gero eta urrutiago eramaten)
Caritasek berretsi egiten du Lurreko herri guztien erabateko garapena lortzea helburu duen karitate delakoaren dimentsio unibertsala. Karitate hori ekintzetan gauzatzen da, tokiko Caritasen eta komunitate erlijiosoen anaitasunezko babesa izan nahi duten ekintzetan.

Ekuador	19.200 €
Kenya	89.908 €
Kongo	9.500 €
Benin	16.000 €
Puerto Rico	27.000 €
Dominicar Errepublika	27.000 €
El Salvador	80.000 €
Bolivia	70.000 €
Peru	3.500 €
Guztira	342.108 €

KITZIN: BIDEZKO MERKATARITZAKO DENDA

Bidezko Merkataritzako Kitzin dendaren bidez, bidezko harreman ekonomikoak sortzen lagundu nahi da, hau da, gardentasunean eta ekitatean oinarritutakoak, eta garapen bidean dauden herrialdeetan ekoizleen eta langileen eskubideak bermatzen dituztenak. Caritasen jardunaren parte da mundua bidezkoagoa izatea lortzea; hartara, ekoizten, banatzen eta merkaturatzen diharduten pertsonak beren



lanaren bidez duintasunez bizi ahal izan daitezen.

- ✱Dendan egindako zuzeneko salmenta: 35.557 €
- ✱Kalean, “azoka txikietan”, egindako salmentak: 3.521 €.

Aurten inpaktu handia jasan du dendak COVID-19a dela-eta. Alarma-egoerak denda guztiz ixtera behartu zuen maiatzaren erdialdera arte eta hortik aurrera jarduerari berriro ekin ahal izan zitzaion, baina pixkanaka-pixkanaka.



KOMUNIKAZIO, PRESTAKUNTZA, ERAGIN ETA BOLUNTARIO ARLOA



Pandemiaren testuinguruak aurrez aurre jarri gintuen, ohiz kanpoko moduan, presentzia eta gure komunikazio-estrategia zaintzeko beharra; boluntarioengana, kolaboratzaileengana eta, hedaduraz, gizarte osoarengana iristeko. 2020an zehar, CARITASeko atea jotzen zuten pertsonak nola zeuden eta haien zailtasunen aurrean zer gizarte-laguntza ematen zitzaien kontatu zuten komunikazio-ekintzek. “Caritasek ez du ixten” mezua zabaldu genuen sare sozialen eta gainerako komunikabideen bitartez. Komunikazioak ere inpaktu

positiboa izan du, nabarmen handitu baita gure sare sozialetara eta web orrira sartu den erabiltzaile kopurua.

155 komunikazio-jarduera egin dira:

- * 901 mezu elektroniko bidali dira
- * Webgunean 89 argitalpen egin dira

Honela banatuta dagoen publikoarentzat:

- * 1.128 jarraitzaile **Mailchimp**-en .
- * 1.307 jarraitzaile **Facebook**-en.
- * 679 jarraitzaile **Twitter**-en.
- * 813 jarraitzaile **Instagram**-en .
- * 201 jarraitzaile **WhatsApp**-en .

Sentsibilizazio- eta komunikazio-jarduerak:

- * 4 kanpaina instituzional.
- * 1. jardunaldia prentsarekin. **Gipuzkoako Caritasen** hainbat zentrotara bisita komunikabideekin batera (otsailak 12).
- * Corpus eguneko prentsaurreakoa (ekainak 10).
- * 40 argitalpen komunikabideetan.
- * Opil Solidarioa (urtarrilak 5).
- * Bakearen astea. Hitzaldiak Iraurgi (Azpeitia), Larramendi (Donostia) eta La Salle (Donostia) ikastetxeetan (urtarrilak 27 eta 29).
- * Kontzertu solidarioa Caritasen alde: Ikastetxe Nagusia (otsailak 28).
- * Kontzertu Caritasen alde **Instagram**-en (maiatzak 17).
- * Kontzertu solidarioa Tecnun-Caritas **online** (ekainak 11).
- * **Euskal Herriko Gazte Abesbatzaren**



konzertua Caritasen alde Donostiako San Bizente elizan (uztailak 17).

- * Gabonetako kontzertu solidarioa (abendua 23).
- * Mari Cruz Basconesek eta **Gipuzkoako Caritasek** elkarrekin egindako “Gaueko seme-alabak” erakusketaren zerrenda.
- * Hitzaldiak eta kolaborazioak ikastetxeekin urte osoan zehar.
- * Isilune Zirkuluak.

BOLUNTARIOTZA

Pandemiaren inpaktuak ondorio oso positiboa izan du elkartasunaren eta boluntariotzaren arloan. Pertsona askok jo dute Caritaseko atea. Aurrez aurreko eta telefono bidezko harrera egin diegu boluntariotzan jarduteko leku baten bila dabiltzan pertsona horiei. Laurehundik gora pertsonak adierazi dute laguntzeko

interesa eta Caritaseko parroketara, zentroetara eta programetara bideratu ditugu.

Programa honek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmena du.

PRESTAKUNTZA

Pandemiak kontaktu guztia modu digitalean bideratzera behartu gintuen arren, hau da 2020. urtean garatutako prestakuntza:

- * **Bidetik** Gizarte- eta karitate-pastoraltzako topaketa (otsailak 8).
- * Nico Eguibarren “Hitzaldi motibagarria” Miriameko parte-hartzaileei zuzendua (martxoak 4).
- * **Eskubidedun migratzaileak sarearen** “Mujer, migrantes y Trata” hitzaldia, Donostiako Arrupe aretoan (martxoak 5). M. Luisa del Pozo (Oblata), Teresa Girón (ÖDOS proiektua), Maria Teresa Compte

(UPSAMeko Doktrina Sozialeko Masterraren zuzendaria).

- * Telefonozko entzuketa **Bidegin** elkartearekin.
- * Miriam programako boluntarioei zuzendutako entzuketa, Itxaropenaren Telefonoarekin lankidetzan.
- * Espainiako Caritasen udako eskola.
- * Pio XII.a Institutuaren eta Caritasen “Fiskalitatea eta guztien ongia” udako ikastaroa (uztailak 13, 14 eta 15).
- * **Ibilian**, “Fratelli Tutti”: José Ignacio Munilla gotzaina (urriak 24).
- * **Topaki** “Inor ez da bakarrik salbatzen: elkartzearen kultura vs bazterketaren kultura” (azaroak 19). Fabio Baggio (Giza Zerbitzu Integralerako Deikaztegiko Migratzaile eta Errefuxiatuen Saileko idazkariordea).
- * **Arartekoaren** udako ikastaroa. **Nahi gabeko bakardadea. Politika publikoen ereduak eta herritarren konpromisoa** (irailak 23 eta 24).
- * “Gizarte bazterkeria eta nahi ez den bakardadeari buruzko azterlana” jardunaldia EHUko Carlos Santamaria eraikinean (abendua 1). Erakundeak: Itxaropenaren Telefonoa, EHU, Emaus eta Gipuzkoako Caritas.
- * Horrez gain, prestakuntza-eremuak Miriam programako langileei eta Etxerik Gabeko Pertsonen Arloari zuzendutako Caritasen gizarte-ekintzako ereduak sakonduz.

KUDEAKETA-ADMINISTRAZIO ETA AHOLKULARITZA JURIDIKO ARLOA




AHOLKULARITZA JURIDIKOKO ZERBITZUA

Alarma-egoerak eta konfinamenduak bulego fisikoa eta aurrez aurreko arreta ixtea ekarri zuen. Egoera horren aurrean, Caritasen jabetu ginen gizarteari ematen diogun zerbitzua ezin dela eten.

2020. urtean zehar, aholkularitza juridikoko zerbitzuak lan-karga handia izan du araudien produkzioan; dekretu eta aginduen aldaketak ia egunero gertatzen ziren eta.

Aldaketa handia gertatu da administrazioetan ere, aldeztu aurretik hitzordua hartzeko sistemak ezarri baitituzte, kasu gehienetan Internet bidez; hori erronka handia izan da eten digitalaren garai honetan. Aldi berean, Estatuko administrazioak egoitza elektroniko bidezko izapideen alde egiten ari dira. Artatzen dugun pertsonen gehiengoa sistematik at geratzeko arriskuan dago sistemaren konplexutasuna eta ordenagailua, eskanerra eta estatuko webguneetan eskaerak aurkezteko oinarritzko ezagutzak izateko beharra direla-eta.



ABEEEi buruzko informazioa eskuratzea buruhauste bat izan da, kasu gehienetan ez baitzetozen bat sistemako informazioa errealitatearekin. Hain zuzen ere, pertsona askok hilabeteak igaro dituzte SEPEtik kobratu gabe, arrazoiak jakin gabe.


Enplegatzaileen egoera ere, Gizarte Segurantzaren aldaera zein baxa emateari dagokionez, zaila izan da, oztopo ugari sortu dira.

Azpimarratu behar dugu konfinamenduagatik hilabeteetan itxita egon garen arren, artatutako pertsona kopuruak nabarmen egin duela gora: 1.995 pertsona artatu dira aurrez aurre, horietatik 1.395 emakumezkoak izan dira eta 600 gizonezkoak.


FINANTZAKETA ETA GARDENTASUNA

Kanpoko enpresa batek urtero ebaluatzen ditu Donostiako Elizbarrutiko Caritasen kontuak. 2020. urtean **Alter Consulting** enpresak egin du kanpo-ikuskapen hori.


2019 ETA 2020KO INBERTSIOEN ALDERAKETA



ERAGILEAK



BALIBIDEEN JATORRIA





Donostiako Elizbarrutiko Caritasek bere atea jotzen duten pertsonen arazo desberdinak modu espezializatuan artatzen dituzten bost **Fundazio** ditu.

Izan Fundazioa

(www.izan.org)

984an eratu zen irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatu gisa, mendekotasunak tratatzearen arloan jarduera eta zerbitzu sorta zabal bat sortzeko, garatzeko eta hobetzeko helburuarekin. Izan Fundazioak bi programa nagusi ditu: Gizakia Helburu, mendekotasuna dutenei eta haien senitartekoei arreta integrala eskaintzeko, eta Norbera Programa, nerabezaroaren berezko arazoei heltzeko.

Hurkoa Fundazioa

(www.hurkoa.eus)

1990. urtean sortu zen eta helburu du ahulezia-, mendekotasun- edo babesgabezia-egoeran dauden adineko pertsonen edo gaixotasun mentala duten pertsonen eskubideak artatzea, babestea eta defendatzea.

Hurkoa Zainduz Fundazioa

(www.hurkoa.eus)

2013an sortu zen, mendekotasuna duten adineko pertsonak eta haiek zaintzen dituzten familiak artatzeko helburuarekin.

Gizaide Fundazioa

(www.gizaide.eus)

1997. urtean sortu zen, gaixotasun mentala duten pertsonak artatzeko helburuarekin. Honako baliabide hauek ditu:

- * Eguneko Zentroa gaixotasun mentala duten helduentzat.
- * Gaixotasun mentala duten emakumeentzako etxebizitza, intentsitate handiko zainketa duena.
- * Gaixotasun mentala duten pertsonentzako bi etxebizitza, intentsitate ertain eta txikiko zainketa dutenak.

Sarea Fundazioa

(www.sarea.com)

1997. urtean sortu zen, lana lortzeko desabantaila larriak dituzten kolektiboen artean, lan-munduan txertatzeko jarduerak sustatzeko eta enplegua sortzeko.